

MOZIO ARRUNTA

BUENAVISTA INGURUAN RENFEK ERAGITEN DITUEN ZARATAK DIRELA ETA

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Renfek Buenavista inguruan eragiten dituen zaratak direla eta.

JUSTIFIKAZIOA

lazko maiatzetik, Renfek Pasaia eta Buenavista arteko eremuan egiten ditu trenak artatzeko eta mantentzeko lanak. Lan horiek gaueko eta goizaldeko orduetan egiten dituzte, astegunetan zein asteburuetan, eta zarata handiak eragiten dituzte, loa eteten eta atsedena kaltetzen dietelarik. Horregatik, bizilagunek Adif eta Renfe erakundeetara jo dute zaratak eteteko eta Donostiako zaraten ordenantzak agintzen duena betetzea eskatzeko. Adifek honako hau erantzun die bizilagunei:

Astigarraga-Irun tartean hirugarren erreia jartzeko obren ondorioz, eta, zehazki, Gaintxurizketako tunelean jarduteko lanen ondorioz, Lezo-Errenteria eta Irun geltokien arteko bidea gaur egun bide bakarrean egiten da. Egoera horren ondorioz, distantzia ertain eta luzeko trenak ezin izan dira Iruneraino joan, eta beren aparkalekua eta zerbitzuan jartzeko prestaketa Donostian egiten aritu dira.

Hala ere, duela gutxi, Atotxako etorkizuneko geltokia birmoldatzeko proiektua dela eta (EUSKAL TRENBIDE SAREaren obra), edukiera murriztu egin da Donostiako geltokian, 6. eta 8. bideetako aparkalekuen behin betiko baja dela eta, obraren lehen fasea gauzatzeko.

Obra horiek zirela eta, RENFEk proposatu zuen distantzia ertain eta luzeko trenen aparkalekua lekuz aldatzea Pasaiako geltokian gaua igarotzeko. Bertan, trenbideak egokitu dira horretarako, eta ez dago ordezko kokapenik tren horien mantentze eta maniobra jarduerak egiteko behar diren zerbitzuak dituzten inguruetan.

Egoera hau behin-behinekoa da eta Gaintxurizketako tunelaren obrek irauten duten bitartean luzatuko da. Gaur egun ezin izango zaizu Pasaiako geltokiko aparkalekuak bertan behera uzteko data zehatzik eskaini.

Gainera, ohartarazi die lan horien ardura Renfe Operadora-rena dela, eta hari helarazi behar diotela kexua, Adif-ek berak ere helarazi dion arren.

Hasieran, motorrak abian izaten zituzten gaueko 21:30etik 23:00etara, eta berriz pizten zituzten goizeko 06:00etan. Lehen kexuek aldaketa eragin dute, eta orain ez dute gaez zaratarik eragiten. Hala ere, goizeko 06:00etan abiatzen dituzte mantentze eta maniobra jarduerak, baita asteburuetan ere.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horregatik, EH BILDU udal taldeak honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du:

- 1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Renfe Operadora-ri bete dezala Donostiako Udaleko Zaraten ordenantzak ordutegiei dagokienez ezarrita duena, baita zaraten gehienezko emisioetarako ezarrita duena ere.
- 2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Renfe Operadora-ri ezar dezala neurri zuzentzaileen bat gutxitzeko tren horien artatze eta mantentze lanak auzotarrengan izaten ari den eragin kaltegarria, Buenavista parean egitea beharrezkoa izango den aldian.
- 3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Renfe Operadora-ri eman diezazkiela Buenavista auzo elkarteko bizilagunei gaiaren inguruan gertatu diren gorabeherei eta hartuko dituen erabakiei buruzko azalpenak.

Donostian, 2022ko apirilaren 1ean.

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea